



Txapela, eta laguna

Zabaleta pozarren dago laugarren txapelarekin, baina bereziki Elordirekin egin duen harremanarekin / 18-19

ASPE

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoko ospitalea 21 ohe izatetik 31 izatera pasako da / 8

Etxarriko bargako iturburuetatik ur biltegira arteko ur hornidura sarea berrituko da aurten / 7

Irurtzungo parte hartze bidezko aurrekontuek jolas parkea estaltzeko eskatu dute / 6

Nafarroako Herri Kirol Jokoeak hiru txapela eta domina ugari utzi dituzte Sakanan / 18

Nafarroa Oinezen barruan antolatzen duten 'Artea Oinez' erakusketa mustu dute Iruñean / 22



DENBORA-PASAK / 9-16

Sakanaoptika
optika eta erretinak
[baita] [baita]

Udaberria dator!
Fresta ilazazu
eguzkitako
betaurrekoak

Intxostia zehar bidea 10 (Altasu)
948 563 124 | www.optikasakana.com



Jone Arnedo Solis Paris 365 fundazioko gizarte langilea jantokiaren sarreran. PARIS 365

"Gizarte mailan aldaketa txikiak lortzen dira; baina badira"

JONE ARNEDO SOLIS GIZARTE LANGILEA

Altsasuarrak Iruñeko Paris 365 fundazioan lan egiten du. Egoera zaurgarrian dauden pertsonak laguntzen ditu, besteak beste

tugu ere bai. Laguntza hori ematea. Egunerokotasunean tramite eta beste gauza askotan laguntzen ditugu ere bai.

Zergatik erabaki zenuen gizarte langilea izatea?

Hasieran zalantza pila nuen. Banekien letrekin zerikusia zuen zerbait ikasi behar nuela, hori ziur nuen, eta gizartearekin zerikusia zuen zerbait egin nahi nuela. Gizarte Langintza karreraren sartu nintzenean ez nuen oso argi zertan bukatuko nuen, eta gustura bukatu nuen, egia esan.

Noiz hasi zinen Paris 365 fundazioan lanean?

Unibertsitateko laugarren mailan praktika kurrikularrak Iruñeko fundazio honetan egin nituen. Lau edo bost hilabetez egon nintzen praktikak egiten, gutxi gorabehera, eta gero ordezkapen bat egiteko proposatu zidaten. Ordezkapena bukatuta lanean gelditzea eskaini zidaten. Urte eta erdi inguru daramat bertan. Gasteizen praktikak bilatzeko orduan pixka bat konplikatu zitzaidan gauza eta, egia esan, niretzako Nafarroan lan egitea errazagoa da. Gasteizen ikasi nuen, eta lau urtez Euskal Autonomi Erkidegoko sistema ezagutu ondoren, Nafarroako sistema ezagutu nahi nuen ere bai; gainetik ezagutzen nuen, baina ez gizarte langintzaren eremuan. Hasieran beste eremu batean egin nahi nituen praktikak, beste entitate batean, eta ez goi mailako gizarte bazterkeria delakoan. Garai horretan ez nuen horretan lan egin nahi, ez zidan atentzioa ematen, baina orain bai, oso gustura nago.

Sistema asko aldatzen da?

Bai, aldatzen da. Ez da aldaketa oso handia, ez dira sistema hain desberdinak, baina aldatzen dira. Nafarroan legediak, dekretuak eta tramiteak nola ziren ez nuen ezagutzen.

Zein da zehazki zure lana?

Harrera programan lan egiten dut beste bi gizarte langilerekin. Jantokira edo fundazioaren beste baliabidetara iristen den jende berriari harrera egiten diegu. Fundaziora etortzean baliabidetara sartzeko gurekin bildu

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Paris 365 Iruñean dagoen fundazio bat da. Jantokia, janari biltegia eta bigarren eskuko dendak ditu, besteak beste, eta helburua bazterkeria egoeratan dauden pertsonak eta familiak laguntzea da. Jone Arnedo Solis gizarte langile altsasuarrak urte bat eta erdi inguru darama bertan lan egiten. Lana etxera ez eramaten saiatzen den arren, kasuren baten batekin "buruko minak" dituela aitortu du. Batzuetan lan zaila den arren, besteak laguntzea pozgarria dela esan du altsasuarrak. Egoerak "okerrera" egin duela nabaritu du.

Zer da gizarte langilearen lana?

Egoera, area edo eremu desberdin pila bat egon daitezke gure lanean, baina nire kasuan egoera ekonomiko oso zaurgarrietan dauden pertsonen laguntza ematean datza. Pertsonalki eta taldeka beraiekin egoten gara eta tramiteak egiten laguntzen di-



EGOKI
Ventanas PVC Leihokak
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



behar dute bai ala bai, eta lehenengo elkarrizketa indibiduala izaten dugu beraiekin. Diagnostiko bat egiten dugu eta izan ditzaketen beharrak identifikatzen ditugu. Horren arabera beste entitate edo baliabide publikoetara orientatzen ditugu, eta horretaz gain, kasuaren arabera, baliabideetara sarrera ematen diegu edo ez.

Zeintzuk dira Paris 365 fundazioaren baliabideak? Zein da bere funtzionamendua?

Fundazioak hainbat baliabide ditu. Garrantzitsuenak jantokia eta biltegia dira. Jantokia 18 urtez gorako pertsonentzat da. Egunero bazkaltzera eta afaltzera datoz. Horregatik deitzen da Paris 365, egunero irekita dagoelako. Gero despentsa edo biltegia dago. Horretara, bere gain adingabeak dituzten familiak joaten dira. Banaketa hori egiten da jantokia ez delako adingabeentzako espazio bat, bazkaltzeko eta afaltzeko orduetan ikastetxean daudelako. Jantokian guk kozinatzen dugu, nik pertsonalki ez, baina jantokiaren sukaldean egiten dituzte bi otordu egunero eta biltegian ematen zaizkienak jaki eta elikagai freskoak dira: lekaleak, barazkiak, haragia, arraina... Horrela bermatzen dugu adingabeak ongi elikatzen direla haien espazioan, nahiz eta askotan bizi diren etxebizitzak ez diren espazio seguruak, baina behintzat haien nukleoan daude. Jantokia etxea ez dutenendako espazioa ere bada, gizarteratzeko eta sozializatzeko.

Jantokia nortzuk erabiltzen dute? Zer baldintza bete behar dituzte?

Bazterkeria egoeran dauden, sare sozialik edo familiarrik ez duten eta ekonomikoki egoera oso zaurgarrian dauden pertsonak. Prestazio ekonomikoa jasotzen duen pertsona bat egon daiteke, baina sare sozialik ez izatea. Egia esan, egoera ekonomiko zailak dituzte denek, profila hori izaten da.

Luzerako izaten da?

Bi kasu desberdin izaten ditugu. Jantokiaren kasuan badaude pertsonak, agian gazteagoak direnak, migranteak, eta egoerak berak behartzen ditu jantokian egotera. Baina beraientzat positiboa da autonomoak direlako eta helburua jantokitik ospa egitea da. Hori da gure xede nagusia, hortik ateratzea eta errotazioa egotea. Kostatzen ari zaigu, egia esan. Gero badago beste profil bat agian parametro guztiak be-



Paris 365 fundazioko Iruñeko jantokia. PARIS 365

"HARRERA PROGRAMAN LAN EGITEN DUT BESTE BI GIZARTE LANGILEREKIN"

"PARIS 365 FUNDAZIOAK HAINBAT BALIABIDE DITU: JANTOKIA, BILTEGIA, DENDAK..."

"JANTOKIA POSITIBOA DA AUTONOMOAK DIRELAKO; XEDEA HORTIK ATERATZEA DA"

"LARRIALDIETARAKO BALIABIDE BAT GARA, HELBURU NAGUSIA OINARRIZKOENA BETETZEA DA"

tetzen dituen baina sozializatzea behar duena. Alor horretan muga asko dituzten pertsonak dira, bazterkeria handia jasaten dutenak, kontsumo problematikak dituztenak... Jantokiak hori ematen die. Azkenean, beraientzako errutina bat bilatzea da; bizitza egituratzea. Ordu jakin batean joan behar dira bazkaltzera, afaltzera... Konpromiso bat hartzen dute, eta beraientzako ona da. Profil hori denboran luze mantentzen da, baina ez dira asko, hamar bat egongo dira egoera horretan. Beste guztien helburua hortik ateratzea da.

Zenbat pertsonarekin aritu zara?

Ez dakit, pila bat.

Eta kasuak jarraitzen dituzu?

Hilabeteen behin, gutxienez, jarraipenak izaten ditugu, baina egia esan asko egunerokoak izaten dira. Egoera oso zailak izaten dira, esaterako, indarkeria matxista jasan duen emakume batekin, ezin duzu hilabeteen behin bakarrik egon, ia-ia egunero egon behar duzu. Egon daitezke beste zenbait egoera oso zailak lagundu behar dituzunak.

Gizarte langileak baino gehiago bihurtzen zarete, familia.

Bai eta ez. Nik uste barrera hori jartzea beharrezkoa dela. Beraientzako eta guretzako ere bai. Sistema publikoan erreferenteak dituzte eta izan behar dituzte. Guk ez dugu ahalmenik prestaziorik tramitatzeko ezta gauza

asko egiteko ere. Guk laguntza eskaini diezaiekegu, ezin dugu dependentzia sortu.

Eta nola lortzen da?

Nik uste denborarekin sortzen dela eta sortu behar duzula. Ateratzen da.

Urte eta erdi honetan aldaketaren bat egon dela nabaritu duzu? Erabiltzaile gehiago daude?

Bai, asko nabaritu da. Praktikak pandemia hasita zegoenean hasi nituen eta pandemiarekin profila aldatu da, batez ere familiena. Agian lehen bazeuden muga zeuden familiak, esan nahi dut, dituzten diru sarrerekin gutxi gorabehera hilabete bukaerara arte iristen zirenak, baina orain ABEEekin (Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak), EEEekin (Enplegu Erregu-

lazioko Espedienteak) eta horrelakoekin dagoeneko muga pasa dute, eta janaria hartzen ari dira. Perfila aldatzen joan da. Migrazio asko egon da ere, beti daude fluxuak, mugitzen joaten da, baina Ukrainiako gaiarekin asko mugitu da. Nahiko gainezka gaude. Jantokian 70 plaza ditugu eta biltegian beste 70. Biltegian denbora mugatuaz egoten dira, sei hilabete bakarrik, eta tarte hori bukatzen denean atera behar dira. Normalean egoera askoz dezentagoarekin ateratzen dira. Orain beteta gaude eta egunero etortzen zaizkigu lau edo bost pertsona berri. Ezet esan behar diegu; esan behar diegu ezin dutela gurekin bazkaldu edo afaldu. Eta jatea oinarritzkoena da.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

PORTUKO

Gosari goxo-goxoak egunero
Etxarri Aranatz

Altasasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (jantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

«AURREKO ORRIAN HASTEN DA

Nola kudeatzen dituzue kasu horiek? Beste biderik badute?

Iruñean beste jantoki bat dago, udalarena dena, eta hori ere aspaldi beteta dago. Ez dago baliabide gehiagorik. Horretan lanean ari gara.

Beraz, zer egoeratan zaudete?

Pixka bat zaila izaten ari da. Kostatzen da ezetz esatea. Larrialdiko baliabide bat gara eta gure helburu nagusia hori asetzea da; elikadura, oinarritzkoena dena, betetzea. Momentu honetan ez dugu betetzen bada-kigulako ezetz esaten diogun pertsona horrek ez duela jango. Badakizu ez duela beste irten-biderik edo dituenak oso gutxi direla. Etortzen den jendea zitan hartzen dugu eta azaltzen diegu gure sistema nolakoa den, zergatik ez diren sartzen eta saiatzen gara azaltzen erroldatuta badaude nora joan daitezkeen. Baina erroldaturik ez badaude ez dira sartzen sistema publikoan eta handik ere kanpo gelditzen dira.

Irtenbiderik badago?

Nafarroako Gobernuarekin eta Iruñeko Udalarekin lanean ari gara, gu eta kolektibo honekin lan egiten duten beste entitate asko. Noizean behin biltzen gara, azken denboraldi honetan nahikotxo, erantzun bat emateko eta politikoki eragiteko.

Onera egingo duela uste duzue?

Nik esango nuke ezetz. Ez dakit lankideek zer esango luketen, baina momentu honetan nik ez dut ikusten hobera egingo duenik.

Garai txarrak datoz.

Dudarik gabe. Prezioak igotzen ari dira, etxebizitzaren gaia, Iruñean behintzat, oso gaizki dago. Astakeriak egiten ari dira etxebizitzaren eta alokairuen prezioekin...

Langileak ez ezik, Paris 365an boluntarioak daude ere.

Boluntarioak gure oinarria dira. Boluntariorik gabe Paris 365 ez zen aurrera aterako. Laurehun bat boluntario dira eta baliabide guztietan daude. Jantokioak ia garrantzitsuenak dira egunero daudelako, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan, asteburuetan, eguberrietan... Bigarren eskuko bi denda ditugu eta bertan langileak eta boluntarioak daude ere bai. Mutiloan nabe bat dugu eta bertan jendearen donazioak hartzen ditugu eta han ere boluntarioak daude. Leku guztietan daude. Zer egin daiteke laguntzeko?



Jone Arnedo Solis Paris 365 fundazioko gizarte langilea. PARIS 365

Bazkide pila bat ditu, 700 bat. Bakoitzak nahi duen ekarpena egiten du, urtero edo hilabetero, ahal duenak ahal duena. Enpresek ere donazioak ematen dituzte, eta badago gauzak eramanen dituen jendea. Adibidez, eguberrietako aginaldoa ematen dizute eta zuk dohaintzan ematen duzu. Soberan dagoen arropa guztia bigarren eskuko dendarako eman daiteke edo asteazken goizak boluntario bezala lanean pasa. Horrek ere laguntzen gaitu.

Proiektu gehiago lantzen dituzue?

Jantokia, bildegia eta dende gain, Zopa beroa deitutako programa bat dugu. Azaroan hasten da eta martxo bukaerara arte irauten du. Boluntarioak astean hirutan ateratzen dira, 20:00etatik 22:00 edo 23:00ak arte eta furgoneta batean zopa eta larrialdiko kit-a deitzen dioguna daramate: motxilak, lo zakuak, mantak, arropa... Gizarte langileok markatzen diegu ibilbide bat,

"BOLUNTARIOAK GURE OINARRIA DIRA; HAIK GABE PARIS 365 EZ ZEN AUERRERA ATERAKO"

badakigulako non dagoen jendea lotan, gutxi gorabehera, eta furgonetarekin zopa banatzera, sinbolikoa dena, joaten dira. Gutxieneko kobertura ematen die. Manta bat behar badute edo motxila bat. Baina batez ere beraiekin unetxo bat egoteko da. Beraiek ere duintasun pixka bat izateko: nire bila etorri dira; zopa ematera eta nirekin egotera etorri dira. Badago jendea, eta kasu jakin bat datorkit burura, hiru edo lau urte daramatza kalean. Boluntarioek programan errepikatzen dute, eta badakite hor jarraitzen duela. Azaroa iristeko esperoan egoten da programa hasteko. Jantokian badugu espazio bat Txokoa deitzen dena eta bertan aisialdi espazio bat dago. Orokorrean lan egiten dugun kolektiboak ez duelako aisialdirako sarrerarik sikiera. Ikastaroak egiten ditugu, aisialdiko gauzak, mahai jolasak, irteerak, gaztelania klaseak astean bitan eta abar. Beraientzako jarduerak egiten ditugu.

Egoera zailak bizi izan dituzu?

Bai. Implikazio emozionala gutxi izan behar da, bestela jaten zaitu. Egoera oso-oso zailak bizi izan ditut. Haien kasua kontatzen hasten dira eta pentsatzen duzu,

"ezin da gehiago konplikatu?". Bada, bai. Konplikatu daiteke. Gehienbat beste herrialdeetatik datorren jendea, espektatiba batzuekin etortzen da eta gero ez dira espektatiba horiek betetzen. Bete beharreko epeak daude eta kostatzen da. Ez bakarrik ezetz esatea. Nahiz eta prozesu horretan lagundu, prozesuak batzuetan denboran asko luzatzen dira, eta beraientzako oso zaila da. Badira batzuk agian urte bete daramatela diru sarrerarik gabe. Denbora asko da. Adingabeekin datorren familia bat badago, diru sarrerarik gabe, aurrezkirik gabe eta jatekorik gabe. Egoera horiek oso zailak dira.

Lana etxera eramaten duzu?

Orokorrean ez. Badaude kasu puntual batzuk egon naizela etxean buruko minarekin ez dakidalako nola atera, zer irtenbide eman, baina egia da lan taldean egiten dugula eta horrek laguntzen du. Bakoitzak indibidualki egiten ditu zitak eta ni

"LANAREN ONENA: JENDEA LAGUNTZEN DUZU, ETA OROKORREAN OSO ESKER ONEKOAK DIRA"

kasu batzuetan erreferentea naiz eta nire lankideak beste batzuetan, baina talde mailan hartzen ditugu erabaki nagusiak eta gerta liteke kasuren batean ni trabatuta geratzea eta beste lankide batek aldiz nola landu jakitea.

Egoera pozgarriak egongo dira ere, ezta?

Bai. Espazio polita da. Beraientzako oinarritzko-oinarritzkoena jatea da eta horrekin bakarrik bada. Tripa betearekin hobe pentsatzen da. Hori izanda prozesu guztiak hobe doaz.

Behin ateratzen direnean, itzultzen dira?


Bai, asko, eta gainera boluntario bezala datoz.

Gizarte langileak bertan lan egitearen alde onak?

Askotan etxera gaizki joaten naiz, badakidalako pertsona bat kalean lo egiten dagoela eta ezin dudala lagundu edozein arrazoiengatik, baina gero pentsatzen dut eta esaten dut: "beno, horretan lanean nago eta lortu dut behintzat pertsona horrek egunero jana izatea eta badauka orain erreferente bat prozesu horretan lagunduko diona". Orokorrean ateratzen dira. Gutxi dira gelditzen diren kasuak. Alde onak, asko. Jendea laguntzen duzu eta gero orokorrean oso esker onekoak dira. Beste entitateekin lanean gabiltzanez gizarte mailan aldagetak lortzen dira. Gutxi eta txikiak, baina gauzak lortzen dira. Kostatzen zaigu, baina gauzak lortzen ditugu. Polita da zientzia politikoa honetan lan egitea.

Altsasun kaletik zoazenean, lanetik kanpo, eta kalean bizi den norbait ikusten duzunean, zer sentitzen duzu? Zerbait egiten duzu?

Gainera supermerkatu batetik gertu bizi naiz eta ondotik pasatzen naizenean eta norbait ikusten dudanean pentsatzen dut ea zer egoeratan egon daitekeen pertsona hori. Egia da asko ezagutzen ditudala Iruñetik pasatzen direlako. Denak ez, baina asko bai. Zer egoeratan biziko den pentsatzen dut eta aukera badut beraiekin hitz egiten gelditzen naiz, zerbait behar duten galdetzen diet, zerbaitetan lagundu dezakedan... Ez da supermerkatu sartu eta zerbait erostea, eta orientatzea baizik. Esatea Altsasun aterpe bat dagoela, Iruñera joan daitekeela eta bertan beste aterpe bat dagoela...



ASTEKOA

AITZIBER CAMPION GANBOA

Pertsonak

Batzuetan Patrizioak izango bagina bezala hitz egiten dugu. Nik "Atzo bi pertsona ikusi nituen..." esaten badut, inork gutxik irudikatuko du bi pertsona horiek beltzak zirela, haurrak zirela edota gurpildun aulki batean zeudenik. "Pertsona" hitzari nahiko esanahi mugatua egozten diogulako gehiegitan; esango nuke 35 eta 60 urte bitarteko pertsona zuri, gehienetan gizon, fisikoki funtzionalari egozten diogula hiritar estandarraren estatusa eta, ondorioz, "pertsona" izendatzen ditugu, zalantzarako tarterik utzi gabe.

Estandar horretatik kanpo dagoen gainontzeko guztiari izen espezifikoak ezarri ohi diogu, hala, ohikoa da esatea "Atzo bi haur ikusi nituen...", "Atzo bi gazte ikusi nituen, bi zahar...". Horiek dira "besteak". "Pertsona" soilik izendatzen baditugu argi geratzen ez dena zenbat urruntzen diren aipatutako estandarretik.

Ez dirudi larriegia, ezta? Ez, ez balitz hizkuntzarekin ere ezberdintasun sozialak erreproduzitzen ditugula. Izan ere, pertsonak dira eskubideak dituztenak, zu "zahar" izendatzen bazaitut, ez zaitut pertsona izendatzen eta, beraz, nik, pertsona estandar ahalguztidun honek erabakiko dut zeintzuk diren zure eskubideak eta nola gauzatuko dituzun.

ETA PERTSONA GUZTIAK "PERTSONA" IZENDATUKO BAGENITU, BESTERIK GABE?

Eta pertsona guztiak "pertsona" izendatuko bagenitu, besterik gabe? Aurrekoan parkean txirristara igotzeko zain geunden semea eta biok eta zera esan behar nion: "neskato horren ondoren zure txanda da". Bitan pentsatu eta halaxe esan nion: "pertsona horren ondoren zure txanda da". Zeren bai, hiru urteko pertsonak ere pertsonak dira eta hala izendatzen ahal ditugu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Pertsona erdigunean jartzen duen zainketen eredua

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

2022ko maiatzean Nafarroako Gobernuak Next Generation deitutako diru laguntzekin proiektu pilotu batzuk jarri zituen abian hainbat zonaldeetan (Lizarra, Tafalla, Tuter...).

Arrakasta ikusita, Nafarroa osora zabaltzea da asmoa. Otsailean egindako Parlamentuko bilkuran oniritzia eman zitzaion Foru Dekretu baten testuari, non arautzen diren egoitza, eguneko zentro eta eguneko jardunak bai hirugarren adinean daudenendako, bai elbarritasuna dutenendako eta baita osasun mentalean arazoak dituztenendako ere.

Eta zertan datza eredu hau? Ba orokorrean intentsitate handiko osasun eta gizarte zainketak

behar dituzten pertsonei bideratuta dago, eta helburua da arreta soziosanitario bateratua eta koordinatua ematea, pertsonak ahalik eta denbora gehien beraien etxeetan eta inguru sozialean mantendu ahal izateko.

Hau ezinezkoa denean eta egoitza batera bizitzera joan behar denean, pertsonaren osasun edota gizarte egoerarengatik eredu berri honek erraztuko du egoitzetan etxe batean bezala bizitzea edo etxe bateko funtzionamendua eraman ahal izatea edo ahalik eta gertuen kopiatzea.

Hau da, pertsona batek bere etxetik joan behar izaten duenean, etxean eramaten zuen bizitzaren erritmo antzekoa eraman ahal izatea: lotara

joateko ordua, otorduatarako ohiturak, aisialdirako ekintzak (irakurri, musika, eskulanak, pilota ikusi...)

Horretarako gehienezko plaza kopurua mugatuko da (batez ere berriki eraikitzen diren zentroetan), elkarbizitza unitate txikiagoak egingo dira egoitzen barruan, ratioak jaitziko dira pertsonak erdigunean jartzea errazteko.

Beste alde batetik, eredu berri honetara iristeak eskatzen du profesionalen formakuntza eta rol berriak ezartzea (adibidez, erabiltzaile bakoitzarentzat profesional erreferente bat, bere egora behera guztien jarraipena egingo liokeena), egoitzen espazioak eraldatzea eta egokitzea eredu berria aurrera eraman ahal izateko.



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa kirolak@guaixe.eus eta Erkuden Ruiz Barroso kultura@guaixe.eus

Maketatzailea: Iune Trecet Obeso maketazioa@guaixe.eus

www.guaixe.eus

Publizitatea: Eneida Carreño Mundiñano publi@guaixe.eus

Koordinatzailea: Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu 948 564 275 618 882 675

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika info@gkomunikazioa.eus 948 564 275 (3 luzapena) 619 821 436 Ainhoa Etxeberria Pikabea gk@gkomunikazioa.eus 618 640 056

Administrazioa: Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

Zuzentzailea: Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995 Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernu



Helduak eta haurra jolas parkean. ARTXIBOA

Udalak jolas parkea estali beharko du

Hala erabaki dute irurtzundarrek parte hartze bidezko aurrekontuen bidez. Lan horietara udalak parte hartze bidezko aurrekontuen 35.000 euro bideratuko ditu, baina lana egiteko gehiagorekin osatu beharko du

IRURTZUN

Hamabigarren aldiz irurtzundarrek udalaren diruaren zati bat zertara bideratu erabakitzeak aukera izan dute. Horretarako, egitasmoa sustatzen duen taldeak lau inbertsio aukera proposatu zien. Haietako baten alde botoa emateko aukera izan zuten martxoaren 15etik 26ra eta aukera hori 315 irurtzundarrek baliatu zuten. Botoa eman zutenen %55,87k (176 boto) plazako frontoi atzeko jolas parkea estaltzearen alde egin zuten. Beraz, udalak lan hori egiteko agindua jaso du herritarren aldetik.

Jolas parke hori udalak handitu egin zuen eta aisialdirako altzari berriak jarri zituen. Jen-

Inbertsioak

Urtea	Lana	Kopurua
2011	Erreka eta Bi Haizpetako inguruak aisiarako berreskuratu	20.000
2012	Espaloiak errespetatu. Seinaleak errespetatu	20.000
2013	Igerilekuetako instalazioak hobetu	20.500
2014	Atakondoako aldagelak	35.000
2015	Karpa	35.000
2016	Anbulantziatarako sarbidea egokitzea	35.000
2017	Plazako zorua eta harmailak konpontzea	35.000
2018	Igerilekuetako berdeguneak eta sarrerako hurbiltzea konpontzea	35.000
2019	Igerilekuetako aldagelak konpontzea	35.000
2020	Atakondoa patioan jolas-parkea jartzea	35.000
2021	Pandemiagatik ez zen izan parte hartze aurrekonturik	0
2022	Mendiko ibilbideak berritzea, Ur biltegiaren begiratokia jartzea eta Plazaolan atsedeen guneak jartzea	70.000*
2023	Plazako frontoi atzeko jolas parkea estaltzea	35.000

*2021EKO ETA 2022KO DIRU KOPURUAK BATUTA.

de asko ibiltzen da han, eta jende askok erabiltzen du. Udako hilabeteetan haurrendako jolas eremu horri itzala emanen dion eta beste une batzuetan euritik babestuko duen estalkia jartzea da irurtzundarrek aukeratu dutena. Aitor Carrera Larraza alkateak jakinarazi duenez, aurreikusitako 35.000 eurokin ezin izanen da parkea estali eta udalak beste diru ekarpen bat egin beharko du lanak egin ahal izateko.

Beste aukerak

Proposamenen artean babes gehien lortu duen hurrengo aukera hilerriko jaitsierako zorua konpontzea izan da, %19,04 (60). Gainontzeko bi proposamenek antzeko babesa jaso zuten: Larrazpi gazte elkartearen sukualdea, leihoak eta elektrizitate azpiegitura hobetzeak %13,01 (41) eta Intxaularre parkean iturria eta barbakoak jartzeak %11,7 (37). Aipatu beharra dago musika eskolako eraikina berritzea lanak udalaren aurrekontuan jasota daudela eta horren barruan Larrazpi gazte elkartearen hainbat lan egitekoak direla.

Parte hartzearen bidezko aurrekontuak sustatzen dituen taldeak jakinarazi duenez, botoekin batera auzo eta kaleetako arazo txikiak konpontzeko 52 proposamen jaso ditu. Horien guztiak udalari jakinaraziko dizkio. Aurrekontu txikia duten lanak, normalean, udalak urtean zehar egiten ditu.

AUZO ETA KALEETAKO ARAZO TXIKIAK KONPONTZEKO 52 PROPOSAMEN JASO DITUZTE

Estrategia planerako plangintza proposamena

Jarraipen Batzordeak Sakanako Sozioekonomia Behatokiari aurkeztuko dio hilaren 18an

SAKANA

Sakanako Estrategia Plana (SEP) 2021-2027 aldirako da eta bere baitan industria, energia, merkataritza, turismoa, elikadura eta toki erakundeak arloak hartzen ditu. Hain jasotako helburuak garatzeko Jarraipen Batzordea osatzen duten erakundeek aurtengo ekintza planaren proposamena egin dute. Horretarako, sei lantaldeen proposamenak eta testuinguru orokorrak izan ditu kontuan. www.sakanagaratzen.com webgunean dago proposamena eta sakandarrek ekarpenak egiteko aukera dute. Sakanako Sozioekonomia Behatokia osatzen duten eragileei bidali diete proposamena, hilaren 18an dagoen bileran aztertzeko.

SEP berriak gobernantza eredu berria ezarri du eta aurtengo egiteetako bat hura martxan jartzea izanen da. Aurretik heldu diren inflexio puntura iritsi diren proiektuei ere segida emanen zaie: Dinabide Nafarroako beste ezagutza zentro batzuekin elkarlanean enpresei zerbitzuak zabaltzen hastea; Sakanako bizikleta ibilbidea egiteko finantziazioa ixtea eta lanak hastea; haragia eraldatzeko zentroa zabaltzea eta merkataritza sustatzeko ekintzak gauzatzea.



107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN 10:00-12:00

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS



Bargatik biltegirako ur sarea berrituko da

Ur ihesak daude eta horrek Lizarrustiko uharkako ura erabili beharra ekartzen du udan. Ur hornidura berritzeko iturburuetatik ur biltegira arteko 967,03 metroko ur sarea berritu eginen da. Udalak lanak lehenbailehen egin nahi ditu

ETXARRI ARANATZ

Edateko ura hiru tokitatie eskuratu du Etxarri Aranatzek: bargan dauden Amarriturrietako bi iturburuak eta Lizarrusti ondoan dagoen Txortxorgo errekan dagoen uharkatie eta zundaketatie. Silvia Maraño Chasco alkateak azaldu duenez, "azken horretako ura ez da kalitate onekoa hosto asko erortzen direlako eta uharkak erregulatzeke gaitasun gutxi duelako. Horrek materia organikoa usteltzea eta horrekin oxigenoa galtzea dakar". Beraz, herria bargako iturburuetatik hornitzen da urtean zehar eta udako zenbait garaian Lizarrustikoa erabiltzen da.

Hala ere, bargan dauden iturburuetatik ur biltegira arteko hornidura sarean ur ihesak daude. Horiek konponduz gero, Lizarrustiko uharkako ura ez litzateke erabili beharko eta herria kalitate handiagoko urez hornituko litzateke. Horregatik, udalak bargan duela 50 bat urte egindako ur hartunek eta ur biltegira arteko sarea konponduko du aurren. "Altuen dagoena 26 metro luzeko egitura da eta hainbat iturburutako ura jasotzen du erreten txikien bidez. Ura biltegi nagusi batera doa. Erre-tenetarako sarbidea ematen dute kutxatila batzuk, horrela mantenu lanak egiteko. Harako sarbidea eta iturburuko biltegi nagusiko loturak hobetu behar dira. Baita balbulak berritu eta iturburuaren hustubidea garbitu ere" azaldu du alkateak.

Goiko iturburutik hartutako ura mikrozementuzko hodi baten bidez beherantz eramaten da eta bat egiten du beherago dagoen bigarren iturburuko ura daraman hodiarekin. Iturburu batetik bestera 270 metro daude. Bigarren iturburuan ura jasotzeko modua aurrenekoaren antzekoa da. Bi iturburuetako ura 80 metro kubiko gaitasuna duen ur biltegi erregulatzailerara eramaten da (ur



Amarriturrietatik ur biltegiara arteko sarea konponduko dute. ARTXIBOA

**ETXARRI ARANATZEN
EGUNERO, BATAZ
BESTE, 1.000 METRO
KUBIKO UR
KONTSUMITZEN DA**

biltegi zaharra). Marañonek azaldu duenez, "biltegi zaharrak haustura karga kutxatilaren funtzioa du, hau da, ura eramateko hodian gehiegizko presioa egotea eragozten du. Biltegi hori hala holako egoeran dago, baina oraingoan ez da bertan lanik egingen". Biltegian ur gehiegi jasotzen bada, bere zeharretik erreka batera botatzen du. Ur biltegi zaharretik ur biltegi berri-
ra ur mikrozententuzko hodi baten bidez eramaten da. Azken biltegi horrek 1.200 m³-ko gaitasuna du.

Ur ihesagatik bi biltegiak hustean, haien artean ura garraiatzeko arazoa sortzen da. Alkateak azaldu duenez, "ur hornidura berrezartzean ur biltegi zaharra bete eta gainezka egiten du, eta ur biltegi berriari betetzea kosta egiten zaio. Horren ondorioz, ur hornidura beharrak ez ditu be-

tetzen eta etxarriarrak urik gabe
 uzten gaitu, berez halakorik ez
 gertatzeko nahikoa ur baldin ba-
 dago ere". Maraño nek gaineratu
 duenez, "iturburuetatik biltegi
 zaharrera ura eramateko gaitasun
 handiago dago, bi biltegien artean
 baino". Arazoa aztertu duten tek-
 nikariek uste dute bi biltegien
 artean nahikoa maldarik ez da-
 goelako edo ur burbuilak sortzen
 direlako sortzen dela arazoa.
 Bestetik, Bargatik ur biltegi ber-
 rira arteko ur sarean konpondu
 beharreko hainbat ur ihesi dau-
 de. Ur biltegi berrian sarrerako
 eta konportako balbulak berritu
 beharra dago.

Ur ihesak eta lanak

Etxarri Aranazko Udalak 2017an ur kontagailuak jarri zituen iturburuetan eta ur biltegi berriko sarreran. Alkateak azaldu duenez, "kontagailuek erakutsi zuten iturburuetatik bataz beste 25,21 litro segundoko ateratzen zirela eta biltegia 10,31 iristen zirela. Beraz, %59,1 ur ihesa dago egungo sarean. Neguan eta udaberrian ez da arazoa, bai, ordea, udan, iturburuan emaria jaisten baita". Egoera horri konponbidea emateko Etxarri Aranazko Udalak

erabaki du egungo ur sarearen paralelo berri bat egitea. Hodi berriak dentsitate handiko polietilenoz eginak egonen dira eta egungoenak (150 milimetro) baino diametro handiagoa izanen dute, zati batzuetan 160 mm eta 180 besteetan. Ur biltegi zaharreko lotura berrituko da bere gaitasuna 100 m³-raino handitze-ko. Lanak egiten diren bitartean ur hornidura bermatuta egonen dela ziurtatu du alkateak.

Udalak lanak emateko deialdia egin du eta eskaintzak aurkezteko epean asteazkenean despiditzen da. Lanek 282.208,43 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua dute. Haiek finantzatzeko udalak Lurralde Kohesio Departamentuak kudeatzen dituen Next Generation funtseko 200.000 euroko dirulaguntza du. Kalitate eta prezio eskaintza onena aurkezten duen enpresari emanen dio udalak lanak. Haiek hartzen dituenak hiru hilabete izanen ditulanak despiditzeko. Marañonek azaldu duenez, "dirulaguntzaren baldintzen arabera, bi urte ditugu lanak egiteko, baina lehenbailehen egin nahi ditugu lanak, udarako bukatuta egoteko".



Seinalea eta bidea artean eginen dute.

Hasi dira Etxarri Aranazko ekopasabideko lanak

Aritzalkon ekopasabidea egiteko lanak pasa den astean hasi ziren. Ekopasabidea egiteko zenbait haritz moztu beharko dituzte. Etxarri Aranazko Udalak jakinarazi duenez, zuhaitz horiek etxerako lote gisa banatuko dira. Gainera, lanen tokian aurreneko Korrikan parte hartu ondoren istripuan hil zen Javi Eseberri Arrarasen oroigarria errespeta-tzeko irizpideak lotu ditu udalak.



2023
APRILA
29
IRUNTZULU
HUTSU GUARTEA



XXXXT.
**Sakanako
Ibilaldia**

III. OCHOA DE OLZA MEMORIALA

IBILBIDE LUZEA: IRTEERA: 06:00
54 km. - 3.388 mko desnibela

IBILBIDE MOTZA: IRTEERA: 08:00
25,5 km. - 1.440 mko desnibela

IBILBIDE TXIKIA: IRTEERA: 09:30
14 km. 736 mko desnibela

• Izena-emateak
apiralen 1etik 25era
arte web orrian.
AD!! Ezingo da
izen-ematea egunean
bertan egin

www.zirkuitua.com • www.iratxoelkartea.com

IRATXOELKARTEA



LAGUNTZAILAK



LAGUNTZAILAK



IRATXOELKARTEA



LAGUNTZAILAK



LAGUNTZAILAK



Klinikako ospitaleak 31 ohe izanen ditu

Josefina Arregi klinikako ospitalea handitu egingen da eta gaur egun baino 10 ohe gehiago izanen ditu, guztiak kontzertatuta. Klinikako arduradunek Nafarroako Gobernurekin hitzarmena legegintzaldi hasieran sinatzeko konpromisoa itxi dute

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Joseba Arregi Pabollet Josefina Arregi klinika fundazioko presidentearendako ospitalea gunea handitzea "klinikarendako inflexio puntua" izanen da, "ez bakarrik klinikarendako, Sakana osorako, profesionalendako, kulturarako, lan arlorako... Klinikak dagoeneko duen erreferentzialtasuna indartuko du ospitalea handitzeak". Fundazioko ordezkariak Osasunbidearekin hitzarmen berria negoziatzen luze daramate. Haien asmoa zen hitzarmen berezia legegintzaldi honetan sinatzea, baina ez dute lortu. Hala ere, Osasun Departamentuko ordezkariarekin atzo egindako bileran hitzarmena hurrengo legegintzaldi hasieran sinatzea adostu zuten. Horretarako konpromisoa hartu zuen Santos Indurain Orduña kontseilariak, "lotuta gelditu da". Horrekin ados daude egungo Nafarroako Gobernuari eusten dioten alderdi eta koalizio guztiak. Bai haiek bai klinikak "gizartean beharra ikusten dugulako, gizartea gero eta zaharragoa da".

Klinikako kudeatzaile Angel Gardachal Ausejok azaldu duenez, "departamentuaren eskaera eta konpromisoa izatea albiste ona da. Handitzeak zerbitzuaren kalitatea hobetu eta gaixo psikogeriatrikoen itxaron zerrenda murrizten lagunduko du. 30 urtetan egin dugun lanerako pizgarria eta errefortzua da departamentuaren babes hori".

Arregik azaldu duenez, "hitzarmena sinatu ondoren hasiko dira lanak. Gu irabazi asmorik gabeko fundazioa gara eta bestela ezin dugulako. Orain finantziazioa lotzen ari gara". Presidenteak azaldu duenez, ospitalea beilatokiaren atzean, ekialderantz handiko dute. Eraikin berriak 900 edo 1000 m²-ko azalera izanen du eta hura jasotzera 1,5 milioi euro baino gehiago bideratuko dira. Langileekin elkarlanean



Klinikako Gardachal, Madoz eta Arregi, ezkerrean, Osasunbideako arduradunekin.

KLINIKAK GUZTIA PREST DU HITZARMEN BEREZIA SINATU ONDOREN LANAK URTE AKABERAN HASTEKO

ari dira ospitale berria izanen dena lantzen. Hitzarmenaren sinadura dataren arabera hasiko dira obrak, baina klinikak guztia prest du urte akaberan izan dadin. Lanek urte pasa iraunen dute, baina ospitalea ez da itxiko.

Eguneko zentroa

Klinikak ospitaleaz aparte, kanpo kontsultak, etxez etxeko zerbitzuak eta eguneko zentroa ditu besteak beste. Azken horren espazioa 115 m²-tan handitzeko lanak hilaren akaberan hasiko direla jakinarazi du Arregik. "Lanak irauten duten bitartean erabiltzaileak Otadiako Kristo Deuna aterpetxean egonen dira", jakinarazi du presidentek. Lan horien bitartez eguneko zentroa handitzeaz aparte, hura guztiz eraberrituko dute. "Eraikina beste modu batera antolatuko da, erakargarriagoa eta eroso-

goa izanen da bai langileendako bai erabiltzaileendako. Eguneko zentroa polita eta modernoa izanen da", esan du Arregik, eta jakinarazi du lanak azarorako despidituko dituztela.

Zentroa egiteko lanek 350.000 euroko aurrekontua dute. Gizarte Eskubideen Departamentuak 120.000 euroko dirulaguntza eman du. Aurrekontua osatzeko klinikak 75.000 euro biltzeko kanpaina abiatu zuen abenduan. Presidenteak esan duenez, "Sakanako eta Nafarroako gizarteek erantzun polita eman dute. Bilketa martxa onean doa. Ez dugu nahi gurena lortu, baina guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, proiektuak aurrera egingen duelako". Crowdfunding edo Internet bidezko diru bilketan ekarpenak egiteko azken eguna gaur da. Horretarako, <https://labur.eus/rOLPu> webgunean sartu besterik ez dago. Bestela, osasun zentroaren aldeko diru ekarpenak web orriaren bidez edo klinikako lagunen elkartearen bidez egiteko aukera dago. Horretaz aparte, Altsasuko Dendari Elkarteko kide diren establezimenduetan klinikaren alde dirua biltzeko ontziak jarri dituzte.

Sareak ixteko giltzak berritu nahi ditu Unanuko Kontzejuak

Sareak sektoreka itxi eta zabaltzeko giltzak egoera txarrean daude eta lanok aurten egin nahi dituzte

UNANU

Unanuko Kontzejuaren aurtengo aurrekontuetan 76.900 euroko sarrerak eta 75.900 euroko gastuak jaso dira. Joan den urtean baino 25.000 euro txikiagoa da aurrekontua, inbertsio gutxiago aurreikusten baititu kontzejuak. Halako lanetarako 11.000 euro daude jasoak kontzejuaren aurtengo aurrekontuan. Unanuko Kontzejuko presidente Jesus Mari Balda Mercerok azaldu duenez, herriko sareetako giltzak zahartuta eta egoera txarrean daude. "Herria sektoreka ixteko balio dute, baina edo ez dute itxen, edo erdizka itxen dute edo puskatu egiten dira". Hamar bat giltza dira berritu beharrekoak. Baldak jakinarazi duenez, kontzejuaren asmoa da lana enpresaren bati ematea, egin beharrekoak aurten egin ditzan. Haren aurrekontua 7.000 euro ingurukoa izanen dela jakinarazi du.

Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planera lan hori aurkeztekotan egon zen kontzejuak. "Baina arkitekto baten txostenaren dirua gastatu behar genuen. Gobernuak lanen baremazioa egin eta puntuak banatzen ditu eta ez genekien emanen

zizun edo ez. Horregatik, kontzejuak berak egitea erabaki dugu". Foru administrazioak, bestetik, 4.979,30 euro eman dizkio aurten kontzejuari, hark egokia jotzen duenera bideratzeko. Aipatutako konponketara bideratuko da diru horiziruaren. Bestelako lanak auzolanean egingen dituzte.

Bestetik, Unanuko Kontzejuak ureztatze sistema konpondu nahiko luke. "Duela 50 bat urte tik dugu. Herritar bakoitzak ura hartzeko aukera ematen du. Gaur egun ura eramaten duen kanala zahartuta eta hautsita dago eta, horregatik, gutxi erabiltzen dute. Hura baldintza onetan jarritz gero, gehiagok erabiliko lukete baratza edo arbolak ureztatzeko", argitu du Baldak.

Kexa

Pandemiaren aurretik medikua eta erizaina astearte eta ostiralean joaten ziren Unanuko sendagilearen kontsultategira. "Gaur egun batzuetan ez batean ez bestean ez dira etortzen. Edo erizaina bakarrik etortzen da. Kexak jartzen ditugu baina ez dugu erantzunik jasotzen", azaldu du kontzeju buruak.



Exoeskeletoa erosteko erronka

Larunbatean jendetza bildu zen Uharte Arakilen Kepa Gordok Esklerosi Anizkoitz Nafarroa Elkartearen alde antolatutako erronka solidarioan. Gordo zortzi aldiz jarraian igo zen San Migelera, ezin izan zuen bederatzigarren saiakera gauzatu, baina garrantzitsuen elkarteak exoeskeletoa erosi ahal izateko lortutako diru ekarpena izan zen.



**UDABERRIKO
DENBORA
-PASAK**

Koloreztatu
udaberria

MUXU

Muxu muxu, non nahi duzu muxu
Muxu muxu, non nahi duzu muxu
Muxu muxu, non nahi duzu muxu
Muxu muxu, ❶ _____ nahi duzu muxu

Aizu, aizu ❷ _____
aizu esaidazu zer nahi duzun
Aizu, aizu nahi baduzu
Aizu ❸ _____ baduzu non nahi duzun

Emango nizkizuke, ❹ _____ ertzean
ta gustuko baduzu, ezpain bakoitzean
egidazu txoko bat zure ❺ _____
belarri ertzean, ezpain bakoitzean
Txoko bat gorde dizut nire bihotzean
aurrean, atzean, ❻ _____ gainean
Txoko bat gorde dizut nire bihotzean
belarri ertzean, ezpain bakoitzean

Muxu muxu, non nahi duzu muxu
Muxu muxu, non nahi duzu muxu
Muxu muxu, non nahi duzu muxu
Muxu muxu, non nahi duzu muxu

Aizu, aizu hor ❷ _____
Aizu zuentzat ere badira
Aizu, ❸ _____ bazara
Zatoz eta esan belarrira

Emango nizkizuke, belarri ertzean
ta ❹ _____ baduzu, ezpain bakoitzean
egidazu txoko bat zure bihotzean
belarri ertzean, ezpain bakoitzean
❺ _____ bat gorde dizut nire bihotzean
aurrean, atzean, kopeta gainean
Txoko bat gorde dizut nire bihotzean
belarri ertzean, ezpain bakoitzean

Muxu muxu, non nahi duzu muxu
Muxu muxu, non nahi duzu muxu
Muxu muxu, non nahi duzu muxu
Muxu muxu, non nahi duzu muxu
Muxu muxu, muxu muxu
Muxu muxu, ❺ _____ nahi duzu muxu

Taldea:

La Topadora (Karma diskoa)

Musika:

Luisillo Kalandraka

Hitzak:

Manu Gomez Genua

- ❶ han, non, hor
- ❷ kontaidazu, botaidazu, esaidazu
- ❸ nahi, ahal, ezin
- ❹ besoen, izterren, belarri
- ❺ eltzean, bihotzean, ertzean
- ❻ belarri, ezpainen, kopeta
- ❼ erdira, begira, badira
- ❽ dantzatzen, goxatzen, lotsatzen
- ❾ gustuko, gorroto, maiteko
- ❿ zulo, putzu, txoko
- ⓫ zer, non, zuk




DERMIOEN LETRA ZOPA

I	D	N	Q	K	U	P	L	A	I	F	I	L	B	O	R	D	A	P	E
R	E	Y	T	V	R	H	L	G	S	H	L	J	C	E	H	M	I	M	M
C	E	O	C	O	U	S	A	A	K	L	O	U	S	R	P	P	K	F	C
U	M	L	H	R	B	J	B	I	T	L	E	O	N	C	A	Q	I	A	N
J	A	A	O	G	A	B	A	R	O	Z	G	M	Q	H	R	V	X	M	M
V	N	T	P	M	K	L	X	R	C	A	S	P	I	L	D	E	T	Q	U
A	G	G	O	R	R	C	T	I	Q	Y	Z	Q	W	I	N	L	N	S	Q
T	O	Y	N	Z	A	N	O	X	Z	J	E	R	R	A	S	U	I	D	E
E	L	I	A	A	G	C	G	T	B	Y	X	R	F	G	I	T	L	I	Q
L	U	J	I	X	U	E	N	I	E	J	A	P	B	H	K	W	A	U	H
A	Z	A	T	U	I	S	I	F	R	K	M	Q	M	A	I	M	T	R	X
B	K	G	R	O	I	S	X	N	A	Y	G	U	D	Q	X	G	A	T	H
A	G	W	A	T	K	W	U	S	S	F	J	W	G	A	T	G	K	D	P
X	A	D	G	O	E	X	M	A	T	I	Q	W	U	A	I	L	P	B	A
T	T	X	N	L	P	B	U	F	E	D	W	X	N	L	R	A	P	Z	N
R	E	H	J	S	Y	N	A	M	G	A	R	R	I	Z	R	R	T	D	H
U	D	I	D	U	C	O	L	K	I	X	A	D	Q	K	A	O	A	U	J
N	R	A	Z	U	L	E	T	Z	A	G	P	K	W	Z	L	J	P	T	V
I	Q	V	K	P	M	U	O	I	Z	R	W	E	P	E	T	U	K	Z	E
I	K	G	D	T	Y	B	M	X	E	R	L	O	V	C	C	Q	A	F	I

- Artebakar
- Artiano
- Arrixiki
- Aspilde
- Berastegi
- Bordape
- Erlo
- Ezkutepe
- Garriz
- Gazteluzar
- Itxirriaga
- Katalintxiki
- Lotza
- Mangoluz
- Mugarrate
- Muxingotxabal
- Sakarri
- Ugarkaburu
- Urtxabaleta
- Usarre

SUDOKUAK



BASERRIKO ANIMALIAK



☐ a o o i l
_ _ _ _ _

☐ a a u k t
_ _ _ _ _

☐ t a a n u h z
_ _ _ _ _

☐ a x r t k u r a
_ _ _ _ _

☐ x i t n u a
_ _ _ _ _

☐ r l a i r o a
_ _ _ _ _

☐ a i l z d a
_ _ _ _ _

☐ h b i e a
_ _ _ _ _



☐ u a a s g
_ _ _ _ _

☐ d i r a a
_ _ _ _ _

☐ a e a h a t
_ _ _ _ _

☐ x t a i r e r
_ _ _ _ _

GURUTZE-GRAMA




Horizontalak


- 1. Sakanako herririk populatuena.
- 6. Andia mendilerroko tontorrik altuena.
- 7. ... Eguna, Bakaikun egiten den auto klasikoaren topaketa.
- 9. Altsasuko saskibaloia taldea.
- 11. Euskaraz mintza praktika egiteko taldea.
- 14. Irurtzango gaztelua.
- 15. Emakumeen berdintasuna aldarrikatzen duen ibilaldia.
- 19. Unanuko ihoteetako pertsonaia.
- 21. Irulegiko eskua egin duen forja.
- 22. Joxe ... argazkiko bakarriketalaria.
- 23. Castillo Suarezen azken liburuen izenburua.
- 24. ... Ramirez de Alda argazkiko mendi korrikalaria.
- 25. ... Trail, Etxarri Aranazko lasterketa.

Bertikalak


- 2. ... Duatloia, 25 urte bete dituen duatloia.
- 3. Jose Javier ... argazkiko pilotaria.
- 4. ... Etxeberria argazkiko idazlea.
- 5. Mendebaldean dagoen Sakanako herria.
- 10. Sakanako ibai nagusia, ekialdean.
- 12. Egitarretako ermita.
- 13. Itxaso ... argazkiko Sexguneko sexologoa.
- 16. Gartzia ... San Pedro basilizan koroatu zuten Nafarroako erregea.
- 17. Aurtengo Nafarroa Oinezko leloa.
- 18. ... Manterola, argazkiko Sakanako Garapen Agentziako kudeatzailea.
- 20. Ziordiko urtegia.



ZENBAT DAUDE BAKOITZEKO?




NON DAUDE SAKANAKO PLAZAK?




LOTU ESANAHI BEREKO HITZAK

- | | |
|---------------------|----------------|
| 1. Batia | __ Honezkero |
| 2. Erlamin | __ Habia |
| 3. Iñezturarri | __ Hobeto |
| 4. Pikezo | __ Ausartu |
| 5. Guaixe | __ Ortzadarra |
| 6. Zata | __ Liztor |
| 7. Buzei | __ Korapiloa |
| 8. Topilloa | __ Zimikoka |
| 9. Kafia | __ Ikatz |
| 10. Kike | __ Tximistarri |
| 11. Atrebi izan | __ Nonbaitetik |
| 12. Daunekos | __ Ekaina |
| 13. Iketz | __ Oraintxe |
| 14. Matiesaltakalai | __ Batera |
| 15. Beix | __ Ziztada |
| 16. Garagarzaroa | __ Buruzagi |
| 17. Ostrilleka | __ Abarka |
| 18. Atximixkekan | __ Zotin |
| 19. Hobeki | __ Matxinsalto |
| 20. Nundibeittee | __ Berriz |

UDABERRIAREN HITZAK



**NONDIK
IRITSIKO GARA
LOREAK
UREZTATZERA?**



ERANTZUNAK APIRILAREN 17AN WWW.GUAIXE.EUS-EN

KOLABORAZIOA

Jan-edanak eta aisiarekin zerikusia duten zenbait esaera zahar Sakanan

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Aurrekoan eguraldiarekin eta egutegiarekin loturik agertzen ziren Sakanako esaera zahar zenbait eta oraingoan beste arlo semantiko bat/batzuk izanen ditut hizpide, aspaldiko sakandarren herri-jakinduria islatzen dutenak.

Ugari dira, gurean ere, otorduekin, jaiekin edota aisialdiarekin orokorrean zerikusia duten esaera zaharrak, haiek guztiak (janari-edari, festa edo aisialdi kontzeptu bera bazela esan badaiteke) askoz ere urriagoak izanagatik.

Meipeti pixtu! (Mahaipetik txistu!) (Etxarri, Lizarraga) Otordu batera berandu iristen denari esaten zaio, besterik egin ezin izanen duela gaztigatuz.

Bere ogitti ezta asi zopak eitten (Bere ogitik ez da hasi zopak egiten) (Arruazu) Besterenetik eta ez beretik hasi da, badaezpada ere. Berekoikeria adierazteko erabiltzen da.

Zopak eta furrut nei (izen)! (Zopak eta zurrut nahi (izan)!) (Burunda, Aranatz) Zerbaitekin konformatu ez eta guztia nahi duenari esaten zaio. Lizarragan zertxobait

luzatzen dute: Ik zopak eta alai furrut nei dok? (Hik zopak eta hala ere zurrut nahi duk?). Gaztelaniaz ere kontzeptu berberak erabiltzen dira: "¡Sopas y sorber, no puede ser!".

Kafie, bazkai onan dijigarri eta txarran berdingarri! (Kafea, bazkari onaren dijigarri eta txarraren berdingarri!) (Lizarragabengoa) Kafea, nolanahi ere, beti mesedegarri: bazkari onaren osagaia eta bestelakoaren gustu txarra estaltzekoa.

Gari ona, kutxati saltzen da! (Unanu) Produktu onek ez dute publizitate handirik behar, erosleak agertuko baitira haien bila.

Guu meye mei ondratu, lenoo lertu ze sobratu! (Gure mahaia mahai ondratu, lehenago lehertu zer sobratu!) (Aranatz) Beste garaia izan behar ziren, ez da zalantzarik, mahaira ateratzen zen guztia jaten zutenekoa sakandarrek. Jateko ugari zegoen gutxitan ere, badaezpada, aprobetxatu beharra zeukaten ez baitzekiten noiz izanen zuten atzera berriz horrelako

aukera. Ezin halakorik esan gaur egun, zorionez ala zoritxarrez?

Zakube utsik ez da tente yoten! (Zakua hutsik ez da tente -zutik- egoten!) (Aranatz) Izaki bizidunok ere ezin tente iraun, sabela (zakua) hutsik denbora luzean izatekotan. Gosearen metafora izanen genuke esaera honena.

Uts beriketube beño, ardo madariketube neyoo! (Ur bedeinkatua baino, ardo madarikatua nahiago!) (Etxarri Aranatz) Edozein garaitako izenak eta zorionez beste garai batzuetako izenondoen kontzeptuak kontrajarririk, zaletasunaren alde eginik orduko politikoki zuzenaren aurrean.

Doonien bon-bon, ez toonien yon! Daunien bonbon eta ez taunien oon! Donaaki, donekikue! (Dagoenean bon-bon, ez dagoenean egon! Dagoenarekin, dagoenekikoa!) (Aranatz) Edozer dela ere, dagoenean aprobetxatu behar da eta ez dagoenean jasan. Orotariko Euskal Hiztegia ere horrela dator jasoa onomatopeia eta erabat zabaldua Euskal Herri gehienean: *bon-bon*. (V, G, AN, L, BN, R), *bun-bu* (S), *bun-bun*. (...). (Palabra de categoría gramatical no bien definida, con sdo. vinculado a la idea de derroche, gasto o consumo despreocupado). Gasto profuso. Dagoenean bon-bon, eztagoenean egon (Vc), delarik bon-bon, eztelarik egon (B), cuando hay, se gasta en abundancia; cuando no hay, se aguenta A.

Hirugarrenaren mezuak errealismora bideratzen ditu gizakion eginkizunak: duzunarekin bizi behar duzu eta horretara egokitu.

Letxuboi ez da zui batzien jayua! (Arruazu) (Letxuga/ uraza hori ez da zure baratzean jaioa!), **Ori ez ta zuu batzeko letxube!** (Etxarri Aranatz) (Hori ez da zure baratzeko uraza!), **Axui oi ez ta zui estarbikua!** (Arbizu) (Axuri hori ez da zure ikuilukoa!)

Norbaitek esandako zerbait, beste batek eraginik izan dela adierazteko erabiltzen da, beste baten ahotik ariko balitz bezala.

Goseik eztukanandako, maia beti pronto! (Burunda) (Goserik ez daukanarendako, mahaia beti pronto!) **Nei ez tonandako, afaye prest!** (Lizarraga) (Nahi ez duenarendako, afaria prest!). Gose ezak ez du prestakuntza lanik sortzen.

Nun da naure gogú, an da naure zankú! (Burunda), **Nun da nee gogue, an da nee zangue!** (Aranatz) (Non da neure/nire gogoia, han da neure/nire zangoa!) Zer bururatu, hura egiten dut. Gogoak hala agindurik, huraxe egiten saiatzen naiz.

Nun illundu, an ostatu! (Aranatz) Herritik kanpora abiatu, bidaian edo, gauak non pasatu zehaztu gabe. Bidaiaire beraren egunean eguneko interesak markatuko du gaua non pasatuko den.

Guai guaikue/a, gio giokue/a! (Aranatz) (Orain oraingoa, gero gerokoa!) Momentuan egin beharrekoa egin, ondorengoaz kezkatu gabe. Gauza bakoitza bere tenorean.

Auzalan, etxien/itxen jan da kanpuen lan! (Burunda, Arbizu, Lizarraga) (Auzolan, etxean jan eta kanpoan lan!) Gastuak etxean eta lanak kanpoan, norberarendako etekinik gabeko eginkizuna dela adierazten du.

Asiek gosien kuidaduik ez! (Burunda) (Aseak gosearen kuidadorik/kezkari ez!) Ase dagoenak ez du gosea pasatzeko kezkari.

Ire eltzia gatza botatzen asten eizenien, ikuskon gauzek zenbat baliyo diñen! (Lizarraga) (Hire eltzera gatza botatzen hasten haizenean, ikusiko dun gauzek zenbat balio duten!) Norbera bere kontura bizitzen hasi bitartean ez da konturatzen bizitzak berarekin daramatzen beharrez.

Zaian/zeiten zur ta iriñetan ero/abar!

(Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz) (Zahietan zuhur eta irinetan abar!)

Zahi esaten zaio eho ondorengo gariaren edo beste aleen azalari eta OEHN ikusten den moduan oso zabaldua da: *zahi.1*. (V, G, AN, L, BN, Ae, S, R), *zagi* (L, B, Sal), *sahi* (V-gip), *sei* (V-arr). (...) *Salvado*. (...) *Allegadores de la ceniza y derramadores de la harina, zaietan zur ta iriñetan ero*. Garia edo beste aleren baten kalitatea da esaerak adierazten duena, azal gutxikoa eta mami (irin) askokoa.

Lur beltzak, ogi zuiya! (Lizarraga) Lur ongarrituak, beltzak, uza ona ematen du normalean eta kasu honetan, gariaren fruitu den ogi zuria, ona, ematen duela adierazten bi koloreen kontrastea baliaturik.

Goiz jagia, goiz gose; beandu jagia loz ase! (Bakaiku) (Goiz jaikia, goiz gose; berandu jaikia, loaz ase!) Goiz altxatu denak, goiz izaten du jan beharra ere eta, aldiz, berandu altxatzen denak, nahikoa lo eginik, ez du horrenbeste beharrik.

Gari montonien doon txoriyan penik ez ta sekule urai ber! (Etxarri Aranatz) (Gari metan -montoian- dagoen txoriaren penarik ez da sekula eduki behar!) Begi-bistakoa da esaera honen esanahia. Zer gehiago nahi izan dezake txori arrunt batek? Gauza bera horrelako egoeran dagoen gizakiak ere. Denetatik duenak ez du errukirik sortzen.

Yon ari lo ta jango dek me! (Etxarri Aranatz) (Egon hadi lo eta jango duk mehe!) Zerbait lortu nahi izanez gero erne ibili beharra dagoela adierazten digu. Esaeraren bigarren zatia, ondorioa, era ederrean dago sortua sinestesia medio, hau da, mehe izenondoa ez da jan aditzarekin lotzeko elementua, baina bai aipatu aditzaren ekintza ez egitearen ondorioa.

DUELA 25 URTE...



Galtzadara txangoa

Iturmendiko Euskara Batzordeak antolatuta, herritar gaztetxoek Bernoako galtzada ezagutzeko ibilaldia antolatu zuen. Izan ere, Iturmendi galtzada zaharra berreskuratzeko lanean zebilen aspaldi, eta soldaduskara joan nahi ez zuten hiru kontzientzia eragozle langintza horretan ari ziren. Bidea tokiko ibilbidearen margo txuri horiekin markatuta zuten, zenbait tokitan galtzada bera azaleratuta zegoen.



Andra Mari taldeko finalista guztiek talde argazkia egin zuten Sunbillaan. ANDRA MARI

Sunbillatik txapela eta domina ugari Sakanara

HERRI KIROLAK 2023ko Nafarroako Herri Kirol Jokoetan Andra Mari ikastolak hiru txapela eta bi bigarren postu lortu ditu eta Iñigo Aritza ikastolak hirugarren postu bat. Sakanak herri kirolean goian jarraitzen du

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoen bosgarren jardunaldia edo final handia jokatu zen Sunbillaan, eta Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletako herri kirolari sakandarrak pozik itzuli ziren. Kimuen mailako proba konbinatuan Andra Mari 5 taldea izan zen txapelduna (6:36), beraien taldekide Andra Mari 4 taldeari 7 segundo aterata. Haurren konbinatuan, aldiz, Araxes gailendu zitzaion Andra Mariri, 7 segundoren aldearengatik. Haurren sokatiran Andra Mari taldeko Hotsein izan zen txapelduna, nagusitasun handiz.

Kadeteen mailako proba konbinatuan Igantzi gailendu zen,



Iñigo Aritzakoak hirugarren izan ziren kadeteen sokatira txapelketan. IÑIGO ARITZA

eta kadeteen sokatirako txapelduna Andra Mariko Hotsein

izan zen. Iñigo Aritza ikastolak brontzezko domina jaso zuen.

Espainiako txapelduna

DUATLOIA Marsuaren 25ean Espainiako Duatloi Txapelketak jokatu ziren Sorian. (5 km-20 km-2,5 km). Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza etxarriarrak lan bikaina egin zuen eta Espainiako txapelduna izan zen 55-59 adin tartean (1:03:19). Aurki Europako Txapelketan parte hartuko du, Ibizan, bere taldekide Peio Vergarekin batera.



UTZITAKOA

TRAILA Apirilaren 16ko Bargagain Igoerarako izena ematea zabalik

Apirilaren 16an 10:00etan abiatuko da Bargagaingo Igoera (21 km), Dantzaleku Sakana klubak antolatuta. Navartrail Txapelketarako baliagarria izateaz gain, Nafarroako Banakako Trail Running Txapelketa izango da. 15 km-ko ibilbide herrikoia goa ere antolatu dute. Izena ematea zabalik dago apirilaren 14ra arte, Rockthesport webgunean.

Maidar Betelu Ganboa ETXARREN

"Ez dakit partida ona edo txarra izan den, baina pixka bat sufritu dugu. Aitorrek lan ikaragarria egin du eta asko lagundu nau. Oso ongi sakatu du, oso ongi errematatu du eta oso ongi utzi dizkit pilota asko, gero nik asintzeko. Batzuetan aprobetxatu egin ditut, eta beste batzuetan ez. Gauzak ongi atera zaizkigu: une jakin batzuetan Lasok eta Imazek asko estutu gaituzte, baina ongi eutsi diogu eta aurrera egiteko bultzada lortu dugu. 22ra iritsi garen tanto horrekin geratzen naiz" horrela laburbildu zuen Jose Javier Zabaletak igandean Elordirekin batera Lasoren eta Imazen kontra Nafarroa Arenan jokatuakoa Binakako Txapelketako finala.

Nafarroa Arena ikusgarria beteta zegoen. Lasoren eta Imazen aldeko zale asko zeuden, baina baita Zabaletaren eta Elordiren aldekoak ere, giro aparta sortu zutenak. Arakildarrek eta irurtzundarrek Zabaletaren aldeko pankarta zabaldu zuten, eta Lasoren Ziordiko lagunak ere Biskarretekoa animatu zuten. Ez zen final zirrargarri, ikusgarri eta emozioz betetako horietako bat izan, bereziki bigarren zatian gorriek behera egin zutelako. Urdinak ongi hasi ziren. Elordik beteranoa zirudien, hasieratik protagonismoa hartuz, -esan daiteke finalerdietan Lasoren eta Imazen kontra izan zuen beharaldia ongi etorri zitzaioela, berehala buelta eman baitzion eta final handian lasai aritu baitzen-, eta Zabaleta ere ongi ibili zen. Lehen txanpan Laso eta Imaz ongi aritu ziren eta zortzina berdintzea lortu zuten. Une erabakigarri horretan, urdinek ongi eutsi zuten. "Bikote hau oso gogorra da, eta euren kontra beti lan asko egin behar da. Nahiz eta beraiek harrapatu, lanean segitu dugu. Tanto batzuetan ez gara oso eroso ibili, baina eutsi diogu, eta partida erdian euren pilotekin jarraitzearekin ere asmatu dugu" azaldu zuen Zabaletak.

Ez genuen Zabaleta jotzaileena ikusi, eta nahiz eta Imazek Etxarrengoaren pilotakadei ongi erantzun, ezin izan zion inoiz bizkarra erakutsi. Lasok tanto zoragarriak akats potoloekin tartekatu zituen. Baikoko bikotea euren maila onenetik urruti aritu zen, eta bigarren zatian nabarmen behera egin zuen.

Elordik eta Zabaletak, txapelketa guztian izandako erregulartasunari eutsita, tartea ateratzen hasi ziren eta 13 eta 22 gailendu ziren. Agian final distiratsua egin gabe, baina merezitako txapela lortu zuten, Binakako guztian egindako lan bikainaren ordaina. Justizia poetikoa omen.

Gaurkotasunean

Etxarrengo atzelariak Binakako lau txapel lortu ditu, lau aurrelari ezberdinekin: Irujo, Ezkurdia, Elezkano eta Elordi. Titin, Errandonea eta Fernando Goñirekin binakako lau txapel dituzten pilotari handien klubean sartu da, eta historiako inoizko atzelaririk onenetakoa denez – Binakako Txapelketako pilotari onenaren saria jaso zuen, merezimendu osoz-, Irujorekin, Retegirekin eta Maizekin binakako bosgarren txapelaren Olinpoan sartuko denik ezin da alboratu. Zabaleta nahiko deseroso sentitzen da halako baieztapenen aurrean, eta berehala buelta ematen die. "Txapel honekin oso pozik nago, eta Elordiri eskertu nahi diot bereziki, sekulako lana egin duelako. Nire ustez finaleko pilotaria izan da. Gaurkotasunari bakarrik begiratzen diot, eta lortutakoarekin ikaragarri pozik nago, bereziki nire jendea hemen egon delako eta frontoian disfrutatzen ikusi nautelako. Beraiei ere eskerrik beroenak eman nahi dizkiet" erantzun zuen.

Elordiren alaitasuna

Etxarrengoak Mallabikoaren umore ona goraiatu zuen. "Alaitasun handia eman dit. Lau hilabete hauetan egunero animatuta zegoen, beti irribarrez. Uste dut azkenean hori pixka bat itsasten zaizula, eta on egin dit, niretako txapelketa hau orain

"AITORREN ALAITASUNA PIXKA BAT ITSASI ZAIT, ETA ONGI EGIN DIT"

JOSE JAVIER ZABALETA

"TXAPELAZ GAIN, LAGUN HANDIA EGIN DUT. BEREZIKI AZKEN HORREK POZTEN NAU"

JOSE JAVIER ZABALETA



Zabaletak eta Elordik emozio handia bizi zuten 22. tantoa irabazi eta txapeldunak zirela barneratzean. ASPE

Ongi etorria lau txapelaren klubera

PILOTA Zabaletak eta Elordik ilusioa bete zuten: finalerdietan lesionatutako Tolosari Binakako txapelaren zati handi bat eskaintzea. Elordik bere lehen txapela jantzi zuen eta Zabaletak laugarrena, leporaino beteta eta giro zoragarria zegoen Nafarroa Arenan

arteko gogorrera izan delako, arazo fisiko batzuk izan baititut, partidak nahi bezala prestatzea ekidin dutenak. Eta Aitorrek izugarri lagundu nau, bere alaitasun horrekin. Oso pozik nago, bereziki berarekin egin dudana adiskidetasunarengatik. Txapelaz gain, lagun handia lortu dut, eta hori da garrantzitsuenak; gustura jokatu nuke berriro berarekin".

Pilotaren gorpil zoroak ez du etenik eta Buruz Burukoa hastear da (asteartean aurkeztu zuten). "Txapela irabazteak hurrengoari ekiteko konfiantza ematen du beti, lasaitasuna. Gaur ongi bukatu dut, eta erronka berri bat dut aurrean. Denbora gutxi dut, baina Buruz Burukoa ahalik eta hobekien prestatuko dut. Lehen-dabiziko partidaren maila ematen eta ongi jokatzeko saiaturiko naiz" azaldu zuen Zabaletak.

Tolosarendako

Txapeldunak "txapelaren zati handi handi bat" Tolosari eskaini zioten. "Bere ibilbideko partidarik garrantzitsuenak ez behar handia izan zuen. Bera horrela ikusita guztioi bihotza apurtu zitzaigun. Txapela zati bat berea da. Hemendik denbora batera pilotak halako aukera handiren bat bueltatuko dio, eta ziur nago etorkizunean finalen bat jokatzeko aukera izango duela" oinarri zion Elordik.

Txanponaren beste aldean zeuden Laso eta Imaz. Laso ez zegoen batere gustura finalean egindakoarekin, eta bere maila eman ez izanagatik zuen amorru gehien. "Hasieratik deseroso ibili naiz. Halako finaletan ezin da horrenbeste akats egin" zioen, burumakur. Imaz, malkoei ezin eutsi zegoen. "Ez dut uste beste behin bikote gisa elkarrekin jarriko

gaituztenik. Eta elkarrekin txapela lortzeko aukera ez aprobetxatzeagatik pena handia dut" aitortu zuen.

Etxarrenen, oso kontentu

Etxarrendarrek, kuadrillako lagunak eta senitartekoek ongi etorri ederra egin zioten Zabaletari, pankarta bana eskuan. Suziriak, su artifizialak eta bengalak ez ziren falta izan, ezta aureskua eta lore sorta ere. Denok eman zioten muxu txapeldunari. "2021eko txapela ezin izan genuen ospatu, pandemiagatik, eta hau ospatzeko oso gogotsu gaude. Hunkituta gaude, egia esan" zioen Irurtzungo Saldisetarren amak, areto futbol jokalariek eta Zabaletaren lagun minak. Iratzar jatetxean ordu txikietaraino luzatu zen afarian bildu ziren denak.

Finaleko irudiak



Senitarteko eta lagunak gustura besarkatu zuten txapelduna.

Ongi etorri beroa Irurtzun eta Etxarrenko lagunak, senitartekoek eta etxarrendarrek ongi etorri eder eta zaratatsua egin zioten Zabaletari, suziriak eta aureskua barne. Txapeldunak besarkada eta muxu ugari jaso zituen. 80 lagun bildu ziren afaltzera.



Etxarrendarrek pozik ospatu zuten Zabaletaren txapela.

Bi pankarta Kuadrillakoek Nafarroa Arenan zintzilikatu zuten pankartaz gain -"Aupa Jose Javier, guretzat beti txapeldun"- etxarrendarrek euren pankarta prestatu zuten iluntzeko ongi etorrirako. Zabaletak gustura atera zuen argazkia eurekin.



Unai Lasoren Ziordiko lagunak ez zuten Nafarroa Arenan huts egin.

Lasoren Ziordiko zaleak Lasok lagun taldea du Ziordian, eta sarritan eurekin biltzen da. Jakina, bere lagun ziordiarrek ez dute Lasoren partidetan huts egiten, eta finalean ere Nafarroa Arenan izan ziren, Laso animatzen.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 7

ALTSASU Gazte agenda.

Bingo musikala. Nazioarteko Gazte Astea programaren barruan.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

LARUNBATA 8

ALTSASU Txirrindularitza txapelketa.

Kadeteen mailako XXXV. Altsasuko Trofeoa. Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatuta.

16:00etan, Foru plazan.

ALTSASU Gazte agenda.

World music munduko musikak ekimena. Nazioarteko Gazte Astea programaren barruan.

19:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IGANDEA 9

ETXARRI ARANATZ Festa.

Etxarri Aranazko odol emaleen urteroko festa: luntxa, zozketa eta domina banaketa.

13:00etan, Iturri Eder tabernan.

ALTSASU Kontzertua.

Adrisdead kantautorearen kontzertua: Bossanova, rumba, reggaea...

13:30ean, Haritza tabernan.

ASTELEHENA 10

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

OSTEGUNA 13

ETXARRI ARANATZ Parkea.

Haur parkea.

11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, Euskalerriari frontoian.

OSTIRALA 14

ALTSASU Gazte agenda.

Ping-pong 3x3 txapelketa.

Nazioarteko Gazte Astea programaren barruan.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Dantza ikuskizuna.

Akira Yoshida eta Lali Ayguedo dantzarien *Together to get there* Etxarri Aranazko erresidentzia artistikoan sortutako ikuskizunaren mustutze emanaldia. DNA Nafarroan dantza garaikidea sustatzeko programaren barruan.

19:00etan, kultur etxean.

LARUNBATA 15

ETXARRI ARANATZ Etxera eguna.

10:00 Dianak herrian zehar. Herria apaindu. Mural herrikoia, Malkorramendin.

11:30 Material salmenta eta auzatea, plazan.

12:30 Txozna irekiera eta musika, plazan.

13:00 Sakanako herrien arteko desafioa.

15:00 Herri bazkaria, frontoian.

18:00 Txozna irekiera.

18:30 Kontzertua: Hogei Berriro, euskal kanten bertsioak, plazan. Etxarri Aranazko Udalak antolatuta.

20:00 Manifestazioa: Etxera!

20:30 Taloak eta DJ Bull, plazan.

23:00 Trikidantz eta DJ Bull, plazan.

ARAKIL Irteera.

Txotx! Bazkaria sagardotegian.

12:30 Herrietatik irteera. Hernanira iristean, poteoa.

ZINEMA

ALTSASU

ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

65 gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 6 19:30

Ostirala 7 19:30

Igandea 9 19:30

Un paseo con Madeleine gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 13 19:00

Ostirala 14 19:00

Igandea 16 19:30

En temporada baja gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 20 19:00

Ostirala 21 19:00

14:00 Olaizola sagardotegian bazkaria.

18:30 Hernanira jaitsi.

01:30 Buelta.

LAKUNTZA Bilto eguna.

13:00-14:00 Eztanda txaranga.

14:30 Bazkaria.

17:00 Pilota partidak.

19:00-21:00 Eztanda txaranga.

22:30 Kontzertuak: Rebel Noise, Yakovlev 42, Tirokatuak eta Sustrai Berriak taldeak.

ALTSASU Gazte agenda.

Betiko jolasak. Nazioarteko Gazte Astea programaren barruan.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Antzerkia.

Iortia Antzerki Tailerraren *Estrellas de la muerte* antzezlaren emanaldia.

19:30ean, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 16

ALTSASU Trail lasterketa.

Bargagaingo igoera Izelai Hotel Sari Nagusia. Nafarroako Trail Txapelketa.

Lasterketa luzea, 23 km; lasterketa



ALTSASU Uharte Arte Garaikideko Zentroko Uholdeak programaren Materialak amatu erakusketa.

Apirilaren 16ra arte. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.



ARTXIBOA

IRURTZUN Aixitako gaztelua: Arakilgo zaindari 2011-2020 esku hartze arkeologikoen inguruko erakusketa.

Apirilaren 23ra arte. Pikuxar tabernan.



UTZITAKOA

ALTSASU Liburuaren astea: Saharako liburutegiak ezagutu nahi? Bubisher proiektuaren erakusketa.

Apirilaren 17tik maiatzaren 15era. Liburutegian.

laburra, 14 km. Dantzaleku Sakana klubak antolatuta.
10:00etan, Foru plazatik.

ALTSASU Ikuskizuna.

Txus Eguilazen *Got Rhythm* familiarteko ikuskizuna.
17:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Kontzertua.

Mendebaldeko haizea taldearen kontzertua: Gales, Irlanda eta Bretainiako musikariek osatutako ikuskizuna, folk tradizionalako eta gaur egungo kantuak eta soinuak uztartzen dituzte.
19:30ean, kultur etxean.

ASTELEHENA 17

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, udaletxearen parean.

ALTSASU Ipuin kontaketa.

Saharako errefuxiatuako kamishibai ipuin kontaketa, Kabiak elkartearen eskutik.
Liburuaren astea programaren barruan.
17:30ean, lortia kultur guneko hitzaldi aretoan.

ALTSASU Hitzaldia.

La labor de Kabiak y las bibliotecas en los campos de personas refugiadas saharauis hitzaldia Kabiak elkartearen eskutik. Liburuaren astea programaren barruan.
18:30ean, lortia kultur guneko hitzaldi aretoan.

ASTEARTEA 18

ALTSASU Solasaldia.

Esaten ez den guztian izaskun Etxeberria Zufiaurren liburua irakurri ondoren liburuari buruzko elkarrizketa idazlearekin, irudi eta soinu bandaz lagunduta. *Liburuaren astea* programaren barruan.
18:00etan, lortia kultur guneko hitzaldi aretoan.

ASTEAZKENA 19

ALTSASU Jaialdia.

Las historias que cuentan Literarte jaialdia. Liburuaren astea programaren barruan.
18:30ean, lortia kultur gunearen hitzaldi aretoan.

OSTEGUNA 20

ALTSASU Haurrendako tailerra.

Papera egiten dugu haurrendako tailerra Itziar Zudaire Sakanako Mankomunitateko Hondakin zerbitzuko hezitzailearekin.
Liburuaren astea programaren barruan.
18:00etan, lortia kultur gunearen erabilera anitzeko aretoan.

ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.

Energia komunitateak. Zer aukera ditugu Sakanen energia bertan sortu eta kontsumitzeko? Sakanako Garapen Agentziak, Goiener, Becoop eta Nasuivinsak antolatuta, Etxarri Aranazko Udalaren laguntzarekin.
18:30ean, kultur etxean.


OSTIRALA 21

ALTSASU Haurrendako tailerra.


Pun, pun, CorAcción ipuin interaktiboa sortzeko Lehen Hezkuntzako haurrendako tailerra Manolita Thunders artistarekin.
Liburuaren astea programaren barruan.
18:00etan, lortia kultur gunearen erabilera anitzeko aretoan.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Asteazkena, 5




Osteguna, 6



Ostirala, 7



Larunbata, 8



JAIOTZAK

• Aixa Goikoetxea Tapia, apirilaren 2an Uharte Arakilen

HERIOTZAK

• Eva Maria Rojo Elustondo, marsuaren 29an Irurtzunen
• Benito Bakaikoa Razkin, apirilaren 3an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Etxarri Aranatzen **pisu zentrik**oa salgai: hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta trastelekua, 78 m karratu ditu eta bizitzera sartzeko prest dago. Informazio gehiago 628 265 413 Edume.

IKASTAROA

Berto Udalekuetan **izen emateko** epea: Marboaren 24tik apirilaren 17ra arte. Argibide gehiago (Txandak, taldeak...) www.bertoazale.eus web orrian, 943 694 129 zenbakira deituz (asteleheneetik ostiralera, 10:30etik 13:30era) edota aisialdia@bertoazale.eus helbidera idatziz.

Oinarritzko gaitasun digitalak doako **ikastaroak** **Irurtzunen**: enplegu-eskatzailerei zuzendutakoa apirilaren 17tik 28ra, 9:15tik 13:15era izango da, pertsona erretiratuak zuzendutakoa

apirilaren 17tik 21era, 16:00etatik 20:00etara eta herritar guztiei zuzendutakoa apirilaren 24tik 28ra, 16:00etatik 20:00etara. Denak Kultur etxean burutuko dira. Izen emateak 948 012 012 telefonora deituz edo aventuradigital@navarra.es emailera idatziz.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Altsasuko Udalak Aisialdiko begiraleak eta zuzendaritza kontratazko poltsa osatuko du: Lan poltsan sartu nahi dutenek beraien eskaerak apirilaren 11tik 21era aurkeztu behar dituzte udaletxean edo Altsasuko Udalaren egoitza elektronikoa. Lan poltsaren indarraldia bi urterako izanen dela jakinarazi dute, 2023ko ekainaren 1etik 2025eko maiatzaren 31a arte.

Jaibuserako arduradunak behar dira: Interesa dutenak bi baldintza bete

behar dituzte, adin nagusia izatea eta euskaraz jakitea. Informazio gehiago Sakanako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan: Irurtzun aldekoak 605 466 805 tfnora deitu, Etxarri Aranatz aldekoak 679 534 481 tfnora eta Altsasu aldekoak 616 841 995 telefonora.

Irurtzunen Kultur teknikari lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia: Irurtzungo Udalak oposizio lehiaketa deitu du eta deialdia bera ordezkapen poltsa bat sortzeko baliatuko du, lanpostu horretan egon daitezkeen beharrak aldi baterako betetzeko. Kultur teknikari lanpostua lortzen duenak kirol teknikari funtzioak ere baditu. Unibertsitate ikasketak eta euskarazko C1 hizkuntza eskakizuna izan behar dira deialdian parte hartzeko. Informazio gehiago eta izen ematea www.irurtzun.eus web orrian edo Irurtzungo udaletxean.

Eskabideak aurkezteko epea apirilaren 12ko 23:59ean amaitzen da.

Etxarri Aranatzeko Udalak hiru peoi aldi baterako kontratatu nahi ditu: Bi pertsona zerbitzu anitzetako lantaldean ariko dira eta hirugarrenak kultura zerbitzuko zereginak beteko ditu. Deialdian interesa duten etxarriarrek apirilaren 11ra arteko epea dute izena emateko. Eskatera Nafar Lansarek Altsasun duen enplegu bulegoan egin behar da. Parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak eta informazio gehiago www.etxarriaranatz.eus web orrian.

LEHIAKETA

ZirTok umore errimatuaren lehiaketa: Bertsazale Elkartek antolatuta, TikTok sare sozialean euskarazko umore errimatu sustatu asmoz sortutako bideo motz lehiaketa, baita zirtza

(erantzun errimatu barre-garria) eta zirtolariak ezagutarazteko asmoz ere. 13 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, nahi adina bideo igota, betiere Zirtok kontua etiketatua. Hiru sari egongo dira 500 euroko bat eta 250 euroko bi. Apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte egongo da parte hartzeko aukera TikTok sare sozialean. Informazio gehiago eta eredu ezberdinen bideoak www.zirtok.eus web orrian edo TikToko ZirTok kontuan.

Olaztiko Udalak egur loteak eskatzeko epea zabaldu du: Udaletxean eman behar da izena apirilaren 21a baino lehen. Egur epaitza bakoitzak 25 euro balio du eta horietatik 10 izena ematekoan ordaindu behar da.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda marbxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazio-

ko zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu WhatsApp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 32 85 93.

Sakanako Etxera egunezko bazkarirako txartelak salgai: Sarek antolatutako Etxera eguna Etxarri Aranatz

egun da, apirilaren 15ean. Bazkarirako txartelak Xapatero eta Leku Ona tabernetan salgai. Hilduentzat 18 eurotan eta 14 urtera arteko haurrentzat 12 eurotan. Bazkaria frontoian izango da, 15:00etan.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus



«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
📧 @Grupolrache
📘 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



'Artea Oinez' erakusketaren eskultura bat. NAFARROA OINEZ

Natura eta artea 'Artea Oinez'-en bat eginik

Nafarroa Oinez en baitan zenbait ekimen antolatzen ari da Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastola, tartean urtero nafar ikastolen aldeko festaren barruan antolatzen duten 'Artea Oinez' erakusketa. Iruñeko Kondestable jauregian mustu dute

ETXARRI ARANATZ

Martxoaren 31n mustu zuten Iruñeko Kondestable jauregian Andra Mari Ikastola antolatzen ari den 2023ko Nafarroa Oinez en *Artea Oinez* erakusketa. 83 artisten 103 artelanez osatzen dute *Natura mehatxatua* erakusketa eta maiatzaren 7ra arte Iruñean izanen da eta, ondoren, Lakuntzako kultur etxean mustuko dute erakusketa. Aurtengo *Artea Oinez*-en Asun Goikoetxea artista bakaikuarra omendu dute.

"Irudimena behar da euskararen aldeko ekintza originalak sortzen jarraitzeko", azaldu du Izaskun Errazkin Beltza Andra Mari Ikastolako lehendakariordeak *Artea Oinez*-aren katalogoaren hitzazurrean, "eta noizbait, norbaiti, bururatu zitzaion, hain zuzen, irudimenaren eta sormenaren dohainak dauzkaten artisten lanekin erakusketa bat antolatzea". *Artea Oinez*. Errazkinen esanetan, Nafarroa Oinezeko ekintza "anitzetatik" arte erakusketa "berezienetakoa" da. Nafar ikastolaren

festaren baitan antolatutako erakusketa "goreneko mailako euskal artisten eskuzabaltasunari esker, haiek utzitako lanak gure herrietan ikusgai izateko pribilegioa dugu".

Natura mehatxatua da 2023ko erakusketaren izenburua. Josu Reparaz Leiza Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakariak katalogoan azaldu bezala, "gizateriarentzat zoragarria izan da beti gure ingurunea antzematea, bere edertasunaz eta dohainez gozatzea; naturak eskaintzen dion guztia aprobetxatzea". Inspirazio iturri, euskarri eta bizigai izan da natura antzinatik. Hortaz, aurtengo *Artea Oinez*-en parte hartzen dute artista askok "kontzientzia berri hori berpizten dute: gizate-

ria eta natura ezin dira bereizi, biek osotasun banaezina osatzen dute". Kezka horretatik abiatuta, parte hartzen duten 83 artistaren bidez "gure ohitura zaharrak sakonki aldatzeko eta berritzeko beharra planteatzen da", hainbat lengoaia eta teknika bilduz. Edizio "oparo, gogoetatsu eta talentuduna" dela dio Reparazek.

Asun Goikoetxea

Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastolak *Artea Oinez* ekimenaren barruan Asunción Goikoetxea artista bakaikuarra omendu du, "arte eta kultura garaikideari, euskarari eta ikastolekin beti izan duen lankidetzak eskuzabalari egindako ekarpenagatik". Goikoetxea Arte Ederretan lizentziatu zen eta karrera "ausart eta luzea" izan du artearen esparruan. Haren obrak Gasteizko Artium Museoan, Nafarroako Museoan, Bizkaiko Foru Aldundian, Eusko Jaurlaritzan, Nafarroako Parlamentuan, Gustavo de Maeztu Museoan eta abar ikus daitezke.

**ERAKUSKETA
MAIATZAREN 7RA
ARTE IZANEN DA
IRUÑEKO
KONDESTABLEN**



BAZTERRETIK

ANNE AZKONA UNANUA

Zer dira, eta zenbateraino dira osasungarriak edulkoratzaileak?

Edulkoratzaileak normalean azukrea ordezkatzeko helburuarekin kontsumitzen dira. Hauek, kantitate txikietan har daitezke, beti ere, azukrea edota edulkoratzailea bera murrizten joateko eta elikagaien benetako zaporeak berreskuratzeko helburuarekin.

"-ol" amaitzen diren hitz guztiak polialkoholak (edulkoratzaileak) dira: Eritritol, Xilitol, Sorbitol ... Ultraprozesatu (gozoki, txikle, izozki, pastel, zero, light edo azukrerik gabeko edari freskagarri edo produktu, gailleta, mermelada...). Egoera naturalean fruta eta barazki batzuetan agertzen dira (txanpiñoi, azalore, ahuakate, sagar, udare...). Horregatik, nahiz eta osasuntsu elikatu, intolerantzia bazara sintomak izan ditzakezu ere bai.

Poliolak heste meharrean ez direnez erabat xurgatzen, odolera iristen den kantitatea irensten dugunaren zati bat baino ez da izango, odoleko glukosa-aldaketak azukrearekin baino askoz

txikiagoak sorraraziz. Hori dela eta, diabetikoentzat edo intsulinarekiko erresistentzia duten pertsonentzat egokiagoak dira.

Hala ere, honek badu desabantaila bat. Xurgatu gabe geratu den gainerakoa heste lodira iritsi, eta ehunka bakterio (gure hesteetako mikrobiota) izango dituzte bertan zain azukre-hondar horiek hartzitzeko irrikaz. Gehiegizko hartzidura horrek ondoeza eragiten du (hantura, beherakoak, gasak, mina...). Polialkohol guztietatik, badakigu ERITRITOLa heste meharrean %90ean xurgatzen den bakarra dela; beraz, kantitate txiki bat kontsumitzeak ez du gas gehiegirik eragingo, baina kantitate jakin batek ondoeza eta hantura, gas, min, gorozki bigun edo leherkorren sintomak eragin ditzake.

Beraz, edulkoratzaileak azukrea murrizteko trantsizio moduan kontsumitu daitezke, elikagaia bera den bezala eta zaporea mozturatu gabe jatea amaiera-helburutzat izanda beti. Ez dira gomendagarrik izango hesteetako hantura-gaixotasuna duten kasuetan: Crohn, kolitis ultzeraduna, edo liseriketa arazoak dituzten pertsonen artean.

Sintoma hauek badituzu eta hauek kontsumitzen badituzu, badakizu zerk eragiten dizun.



UTZITAKOA

Munduko dantza txapelketara

Paula Urabayen Ochoa-Aizpurua dantzari altsasuarra Portugalen jokatuiko den World Dance Cup txapelketarako sailkatu da, apirilaren 2an Burgosen jokatuiko Espainiako kanporaketan bigarren postua lortu ondoren. Munduko txapelketa ekainaren 20tik uztailaren 7ra jokatuiko da. Igone Augusto Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako irakaslea izan da bere entrenatzaile-laguntzailea.

Mundua Irurtzunen

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak eta Irurtzongo Udalak antolatuta KulturenARTEko zikloaren lehenengo ekimena izan zen larunbatean: '11 hizkuntza, 11 kolore'. Munduko esaerak eta abar bildu zituzten

IRURTZUN

Txapela buruan eta ibili munduan, euskaraz. Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna ukrainako esaera. Dibertsitatearen unitatea unibertsoaren ordena da, Indiakoa. Ne pena buter a chipi presas o sos prejena or garlochín edo mingainak ez dio bihotzak sentitzen duena baino gehiago romaniez; lou way déf boboma, ereitzen dena jasotzen da Senegalen eta abar.

Apirilaren leian, larunbatean, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak eta Irurtzongo Udalak zenbait eragilerek batera antolatutako KulturenARTEko zikloaren lehenengo ekimena izan zen Irurtzongo Barazkigunean: *11 hizkuntza, 11 kolore*. Besteak beste, Sakanan bizi diren munduko lagunen sorterrietan erabiltzen diren hainbat esaera eta esamoldeak jaso zituzten liburu erraldoi batean. Munduko ipuinak eta seaskako kantak irakurtzeko eta entzuteko aukera izan zen ere.

Artea pertsonen arteko harremanak bultzatzeko, kasu honetan, jatorri anitzeko pertsonen arteko hartu-emanak sustatzeko erabili du artea Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak. Norberak berea duena eskainiz elkarbizitzarako pausoak pixkanaka emateko tresna dela esan zuen Bego Zestau Anitzartean teknikariak zikloaren aurkezpenean. Aurreko larunbatean izan zen lehenengo ekimena eta, hasteko, herritarrek Irurtzongo zenbait zerbitzu eza-gutzeko aukera izan zuten, ondoren kultur etxean eta Pikuxar euskal txokoa bisita gidatua izan zen.

Eguerdian, Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzua-

rekin batera antolatutako 11 hizkuntza, 11 kolore ekimena egin zuten Barazkigunean (eguraldiak ez zuelako lagundu KulturenARTEko zikloaren mustutzean), eta bi galdera erantzuten aritu ziren: "Nola idazten da KulturARTEkotasuna? Zer soinu dauka?".

Munduan alfabeto eta grafia desberdinak daude, eta horien berri izan zuten Irurtzunen antolatutako ekimenean. Tailerren bidez parte hartzaileek arabieraz, bulgarieraz, kitxueraz, errumanieraz, erromaniz, amazigeraz, woloferaz eta abarrez idazteko aukera izan zuten. Izaskun Mugika aktore eta ipuin kontalaria euskarazko ipuinak kontatu zituen eta kitxuerazkoak entzuteko aukera izan zen.

"Esku artean duzun liburu honetan, Sakanan bizi diren

HAINBAT ESAERA MUNDUKO HERRIALDE DESBERDINETAN BERDINAK DIRA, BESTE BATZUK EZ



Hainbat grafiatan idazteko tailerra egon zen. UTZITAKOA

munduko lagunen sorterrietan erabiltzen diren esaera batzuk jaso nahi izan ditugu". 11 hizkuntza, 11 kolore ekimenean, Irurtzunen eta Arakilen bizi diren pertsonen haien sorterrietan erabiltzen diren esaerak bildu zituzten Munduko esaeren liburu erraldoi batean. Esaera horiek jatorrizko hizkuntzaren grafian jasotzen saiatu dira ere bai. Horietako batzuk munduko hainbat txokotan amankomunak dira, eta beste batzuk ez. Izan ere, esaera zaharrak aholkuak eta argudioak emateko eta, batez ere, irakasteko egiten diren metaforak dira. Liburuaren azkenengo orriak txuri zeuden, norberak bere jaioterriko esaerak gehitu ahal izateko.

Irurtzongo Barazkigunean kulturen arteko artea elkarbanatzeko beste txoko bat zegoen: Sehaskako kanten txokoa. Bertan zenbait herrialdeetako kantak entzuteko aukera izan zen.

Ekimen honek Sakanan dagoen hizkuntza aniztasuna plazaratzeari zuzen helburu, "elkarren ezagutza bultzatzea, besteak beste".



Tailerrak eta Izaskun Mugika ipuin kontalaria izan ziren Irurtzunen. UTZITAKOA

"Kirol proba ikusgarria eskaini nahi genuen"

Nafarroa Oinez Etxarri Aranatzen izanen da aurten, lastailaren 8an. Baina aurretik hainbat ekitaldi antolatu ditu Andra Mari ikastolak. Anaitz Igoa Goñi aurki jokatuko den oztopo proba baten antolakuntzan ari da

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ

1 Antza, zuendako Nafarroa Oinez bera antolatzea ez da nahikoa oztopo proba, eta gehiago?

Hori da. Egun handirako prestatzen joateko, festa pixka bat. Bestela, udazkeneko festaren antolakuntza geldigeldi badoa. Lana da, baina jende asko dago bertan: familia, irakasle, ikasle ohi... Sare handia dago hainbat batzordetan lanean, eta badoa geldigeldi.

2 Nafarroa Oinez egunean bertan erroka dago. Horrekin ere ez duzue nahiko?

Ez. Animatu gara tartean beste zeozer egitera, bai gazte, heldu, haurrei begira. Eta kirolaren inguruan pixka bat mugitzeko. Helburua da oztopo proba herri-eramatea, herriari halako kirol proba berezi edo ikusgarria eskaintzea. Denok gozatzea ikus-

ten, eta parte hartzen duenak ere goza dezala proba horiek gaituz.

3 Esku artean zer duzue?

Oztopo proba bat antolatu dugu apirilaren 22rako. Etxarri Aranazko plazako zabalgunean eta kioskora arteko plaza zatian izanen da. Gazteendako 10 oztopo izanen dira, eta oztopo bakoitzaren ondoren lasterka ibilbide bat egin beharko dute Kaxarna kalean eta inguruan. Helduek, berriz, 12 oztopo pasa beharko dituzte.

4 Zertan datza proba?

Esaterako, tirolina froga bat pasa behar dute eta horren ondoren 250 metroko itzuli bat egin behar dute lasterka. Edo lokotx gozo batzuekin proba egin behar dute, haiek alde batetik bestera eramanez, eta hura despedituta, beste korrikaldi

bat. Horrela oztopo guztiak egin arte.

5 Zeinek parte har dezake?

Lau maila daude. Proba herrikoiairen barnean taldekako kategoriak daude: 10-15 urte (LH 5-DBH 2), 15-18 (DBH 2tik aurrerakoak). Lauko taldeetan ariko dira. Helburua da koope-razio eta oztopoak gaituztea elkarri lagunduz. 18 urtetik gorako helduendako proba herrikoia dago ere. Bosteko talde mistoetan parte har daiteke. Helburua bera da. Ez dago sailkapenik, ez dago kronometratzerik. Azken proba lehiakorra da, 18 urtetik gorakoendako bakarkako proba. Hor bai, sailkapena egonen da eta lehenengo 3 emakumezko eta gizonezkoendako saria izanen da.

6 Genero aldetik taldeak osatzeko araurik bada?



Anaitz Igoa Goñi, Nafarroa Oinezeko Oztopo probako antolatzailea.

Kontutan hartu dugu taldekakoan denok parte hartu ahal izatea. Helduetan misto jarri genuen bai emakumezko bai gizonezkoen taldeak sortzeko, elkar laguntzeko, ikusteko nolakoa den halako proba bat. Gazteetan aukeran dute.

7 Taldeko kide guztiek osatu beharko dute proba? Edo taldekide jakin batzuk?

Probak taldekide guztiek egin beharko dituzte. Baina hor estra-ategia kontua sartzen da. Momenturen batean taldekide batek proba egiteko zailtasun gehiago baldin badauka, beraiek begiratu beharko dute nola egin denen artean proba hori pasa ahal izateko. Eta denek pasatzerik ez badute, ordezko ariketatxo bat dago.

8 Noiz izanen da?

Apirilaren 22an izanen da, larunbatarekin, 14:00etatik aurrera. Orduan gazteak hasiko dira, taldeka. 16:30 aldera bakarkako proba izanen da. 18:30 aldera helduen taldekako proba jokatuko da. Probek irauten duten bitartean taloak jateko aukera izanen da.

9 Sariak daude?

Bai. Proba lehiakorrean aurreneko hiruendako sariak egonen dira emakumezkoetan eta gizonezkoetan. Proba herrikoie-

tan sariak zozketatu egiten dira parte hartzaile guztien artean. Bakoitzarendako opari poltsatxo bat egonen da.

10 Parte hartzeko sasoiko egon behar da?

Pixka bat bai, baina beldurrik gabe. Azkenetako, bakoitzak bere buruari jartzen dio erroka, zer puntutaraino, nola egin nahi duen. Sasoiaren kontuarekin beldurra baldin badago, polita izan daiteke taldekako proban aritzea, denen artean proba pasatzea errazago delako. Eta entrenatzeko? Umorea, eta laster pixka bat egitea.

11 Izena emateko nora hotz egin beharra dago?

www.herrikrosa.eus web orrian sartu. Han hiru probak agertzen dira. Bai bakarkakoan bai taldekakoan banaka eman behar da izena. Hori bai, taldekakoetan parte hartzen dutenek bakarka izena eman ondoren taldearen izena eman behar dute. Ordainketa ere banaka egin behar da. Gainera, 18 urtez beherakoek gurasoen baimena behar dute, sinatutako orri bat. Gainera nor-tasun agiriaren zenbakia ere eskatzen da. Ez badute, gurasoenarekin egin beharko dute izen ematea. Apirilaren 12ra arte dago izen ematea zabalik.

Apirilaren 17an
ITZULIKO GARA



gk
DISEÑUA ETA
KOMUNIKAZIOA



619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu